


Luxuzko oparia Lou Reed zenari eta musikazale orori

VELVET UNDERGROUND taldea desagertu eta gerora ezagutu nuen, jakina. *Arty*-tik bezainbeste zuten apurtzailetik, erritmoak aldatzetik zein giro deserosoak sortzetik besteak beste, eta inspirazio argia izan ziren gero etorriko ziren talde askorentzat. Talde hartatik ezezagunena, Maureen 'Moe' tucker, aspaldi ikusi nuen zuzenean Bilboko En Canal aretoan eta gustatu zitzaidan. John Cale ezagunagoak txundituta utzi ninduen Azkena Rock batean, Gasteizen. Sterling Morrison ezin izan nuen inoiz ikusi, baina Velvet Undergrounden ostean ibilera emankorrena izan zuen Reed aldi bakarrean ikusi ahal izan nuen, Kursaallean, eta hotz utzi ninduen; ez zuen kontzesio bat bera egin.

Haren heriotzak lur jota utzi zuen jende asko, eta horien artean Reedekin eta haren taldekideekin harreman estua izandako Ordorika anaiak. Hala, Jonan Ordorika soinu ingeniari beteteranoa tematu zen Louren omenezko disko bat egiten euskal musikariek euskaraz; eta Louren taldekideek laguntza eskaini zioten, ongiatorria izan dena. Egindako castinga ikaragarria da: ez bakarrik puntako interprete eta musikariek parte hartu dutelako, baizik eta bakoitzak aukeratu edo egokitu zaien kantua bere egin duelako. Hitzek ere azpimarra merezi dute; Txuma Murugarrenek euskarara itzuli eta egokitu ditu, gurean abestuta sinesgarriak bilakatzen.

Ruper Ordorikak –nork bestela?– *Romeo had Juliette* bere egiten du rock and roll tamainan eta Arkaitz Minerren laguntzaz folk ukitua ere gehitzen dio. Delirium Tremens-eko Andonik sasoi onenean dagoela erakutsi digu bere ahots *baziloiarekin*, *Walk*



Lou Reed, mila esker!
Askoren artean
Autoekoizpena, 2014.

on the wild side eresia Javi Pezek lagunduta dantzagarri bilakatuta. Txuma Murugarrenek *Smalltown*-en adiera literalki herri (gorrotagarri) kantu gisa interpretatu du Tapia, Leturia eta Minerrekin. Lozorroan dagoela irudi baina bizirik dagoen El Inquilino Comunistako Santi eta Alvarok *A gift* noise-poparen lurzoru malenkoniatsu eta zaratsura eraman dute. Edozein erronka txiki gelditzen zaion Petti piztiak diskoan gorpuzkera handiena duen kantua sortu du, rockeroena, pisutsuena eta zikinena, *The blue mask* abiapuntu hartuta. Eta kontrapuntuan, Maddi Oihenartek goxatu egin du *I'll be your mirror*.

B aldea Gorka Urbizuk zabaltzen du *The raven-eko Who am I?* filosofikoa, Katamaloren antzeko erregistrotik hurbil, intentsitate handiko pop-rockera eramanez. Jarraian filosofiarekin apurtzen du Evaristok, Paco Locoren instrumentazioak lagunduta, *Real good time together* interpretatuz. Garirekin NYC man entzuten musika beltza eta jazza eguneroko menu duten *garitoetan* irudikatzen dugu gure burua. Anarik benetako *Sad song*-a oparitu digu, azkoitiarrak ohi duen baino tonu are eta ilun zein pisutsuarekin, Reed-en Alemaniako garaia gogoaraziz. Horri guztiari akabera ematen dio lan honetan zeresan handia izan duen Paco Locoren instrumentalak. NYeko biziraulearen omenez munduan egin(go) diren bildumetatik txukunenetarikoa dugu hau, gurean egindakoa. Bultzatzaile eta egi-leei, mila esker! ■

Iker Barandiaran



baga-biga
sendotasuna
musikan

MANAGEMENT: (+34) 618 072 076

baga-biga musika idetak
tel. 618 072 076 / 026
www.baga-biga.com / info@baga-biga.com

QR code

KORRONTZI SYMPHONIC BILBO	ETS FUNKY ARE MUSIKA	TXAPELPUNK Los amigos de los punk	HESIAN Hondak estirak	DOCTOR DESEO Buenos días, buenas tardes y buenas noches
VENDETTA 13 BALAS	EMON Gue	XAIKO HERRA	ESKEAN KRISTO	